

**Egilea:** Maren Arregi Alkorta

## **ZER DA PROTAGONISTA IZATEA?**

Zer da protagonista izatea? Hiztegietan oinarrituta protagonista bat “edozein gertakarik zati nagusia betetzen duen pertsona edo gauza” da. Nire begietatik, pertsona batek bere bizitzan zer egin eta zer ez erabakitzekeo ahalmena duenean bere bizitzaren protagonista bihurtzen da.

Imajina ezazu liburutegi batean zaudela, Historiako liburuen korridorean zaude eta edozein liburu aukeratu duzu. Zer buruz doa liburua? Nolakoak dira pertsonaiak, gizonezkoak ala emakumezkoak? Ez da aditua izan behar seguruenik gizon bati buruzkoa dela jakiteko. Agian Kristobal Kolon, edo Julio Cesar, Franco ere izan daiteke. Zer kontatzen du liburu horrek? Ziurrenik bere lorpen garrantzitsuren bat; gerrak, konkistak, kolonizazioak... Hori dena gauza on edo historikoki garrantzitsu bezala kontatuko du egileak.

Edo agian, emakume bati buruzko liburu bat iritsi da zure eskuetara, Asteasuko kaleetan bertso-kantari aritzen ziren emakumeei buruzkoa, edo hilerri baten barruan agertu ziren emakume hezurrena, Zugarramurdiko emakume zahar harena, Tolosako kartzelatik ihes egin zuenarena, edo senarraren gorpuaren aurrean aienea errezitatu zuenari buruzkoa. Ez pentsa ez dugunik Historian lorpen handirik egin ere, agian aukeratu duzun liburua Kleopatrari buruz doa, edo Marie Curie, edo Frida Khalo...

Agian Historian zehar emakumeok ez gara Amerika aurkitu zutenak edo Erromatar Inperioaren buruzagia izango, ez gara gizon garrantzitsu haiek bezalako “protagonistak” izango Historian, baina, izan ziren Egiptoko agintari, erradioaktibitatearen aurkitzaile edo margolari famatu batzuk. Gizonezko haiek konturatu gabe, liburutegi handi haien sakonean apal bat bereganatu zutenak. Goibelki, emakumeok apal bat bete dugu oraingoz, eta, ez dut dudarik, askoz gehiago beteko ditugula. Baina orain arte, emakume gehienak gutxietsiak izan garelakoan nago, gure ahalmenak zapaldu eta gure seme-alabak zaintzera behartu, edo nekazari lanak egitera, gizona gerran zegoen bitartean gizartea bizirik mantentzera. Ni prest nago apal horiek betetzeko, eta zu?